

Udal talde politikoaren iritzia



IKASTURTEA HASI DA

Iraila hasi dugu eta, udako atsedenaren ondoren, indarberrituta eta ilusioz ekin diogu 2018-2019 ikasturte berriari. Ziklo berezia izango da 2019ko maiatzaren hauteskunde-urte bilakatuko delako; getxoitarren aurrean oso balantze positiboarekin bete ditugun konpromisoak aurkezteko beste aukera bat izango dugu, baita Getxo, Bizkaia eta Euskadi bultzatzen jarraitzeko egitarau-proposamena azaltzeko ere.

Hasi berri dugun ikasturte honetan, Imanol Landa Jauregi alkateak nahiz EAJ-PNV alderdiko talde osoak Getxoko Udalean gauzatu dituzten proiektuak egi bihurtuko dira, gure herriko bizilagunei emandako hitza betetz. Hutsik gabeko kudeaketa zintzoa eta arduratsua egin dugu urte

hauetan eta, erabateko zorrotasunez gauzatuako zerbitzu publikoarekin, konpromiso horiek Getxo modernizatzeko eta hobetzeko prozesu nabarmen eta paregabea eragin dute. Oinezkoentzako eremuak; irisgarritasuna; zirkulazioa nahiz aparkalekuak hobetzea; mailarik goreneko kirola zein kultura; haurrentzako parke berriak; Getxo Elkartegia, BiscayTIK, Romo Kultur Etxea, Getxo Antzokia eta Musika Eskola ekipamenduak; ekonomia- eta finantza-egoera osasuntsua; akordioak indar politikoz guztiekin; gizarte-erakunde eta eragileekin egindako lana, hala nola Getxo Lagunkoia, Getxoko Euskara Plana eta Berdintasun Plana; eta erreferente izan diren eta aitortu diren gardentasun zein parte-hartze prozesuak, esate baterako Thinking Fadura, HAPori buruz-



ko lantaldea eta Bentaranoa.

Orain arte bete diren konpromisoekin batera, ikasturte berri honetan hurrengo 4 urteetan Getxoko Udalean burutzeko EAJ-PNVren proposamen berria aurkeztuko dugu. Amaia Aguirre Muñoa Getxoko Alkatezarako Euzko Alderdi Jeltzalearen hautagaia izango da 2019ko maiatzaren 26an. Udal-jarduera ezagutzen duen zinegotzia da, eta bere gain hartuko du hauteskunde-programa berriaren buruzagitzat, baita getxoitarrekin hartuko dugun konpromisoen kontratuarena ere; gauzak horrela, zintzotasuna, zorrotzetasuna eta ardura barne hartzen dituen proiektuarekin jarraituko du zerbitzu publikoaren lanean, Getxo udalerria bultzatzen jarraitze aldera.

PSE-EE
PSOE

AZKEN IKASTURTEA

Beste ikasturte politiko bat hasiko dugu, alegia, legegintzaldi honetako azkena. Urtebete baino gutxiago geratzen da udal- eta foru-hauteskundeetarako eta, oraingo honetan, aldi berean, Europako hauteskundeak egingo dira. Oraindik ez da balantzea egiteko unea; alabaina, geratzen den legegintzaldiari dagokionez garrantzitsutzat jotzen dugun gaia adierazi nahi dugu: hiri-antolamenduko plan orokorraren (HAPO) berrikuspena. Funtsezkoa izango da erantzunak bilatzea Getxoko bizilagunen etxebizitza-eskariarentzat. Getxoko biztanleria zahartze-prozesuan murgilduta dago, inguruko udalerriak baino gehiago; hortaz, ezinbestekoa da gazteei zuzendutako etxebizitzak sortzera bideratzea plangintza. Duela zenbait hilabete, gobernu-taldeak akordio bat sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, babes ofizialeko 136 etxebizitza eraikitze-ko Iturribarri gunean. Gure ustez, etxebizitza babestutako eraikitze-ko jarduketako ildoan jarraitu behar du plan berriak, hiri-lurzoruan soilik. Herritarrek galtzeko arazoari egin behar diogu aurre eta inguruko udalerrietara doazen gure gazteen exodoari amaiera eman behar zaio.

Cs

ZURE AHOTSA IZAN NAHI DUGU

Iraila iritsi da eta horrekin ikasturte politiko berria hasi dugu; Getxoko Ciudadanos udal-taldea aurreratu nahi du Getxoko herritarrei laguntza eskaintzea izango dela ikasturte honetako ardatz nagusia. Zuen ahotsa izan nahi dugu. Edozein kexa, iradokizun edo ekarpen egiteko, jar zaitezte gurekin harremanetan honako bide hauek erabiliz: herritarrak@getxo.eus; Twitter: @CsGetxo; telefono-zenbakia: 944660291.



IKASTURTE POLITIKO BERRIA



Iraila iritsi da eta horrekin batera ikasturte politiko berria. PPko kideok, gobernu-taldea kontrolatu eta ikuskatzeko agindutako erantzukizunarekin, lanean jarraituko dugu zuon ideia eta proposamenak egi bihurtzeko. Helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa da etengabeko harremana izatea gure bizilagunekin. Zuokin daukagun harreman estua, zuzena eta jarraitua honako bide hauen bidez lortzen dugu: Areetan dugun egoitza (tel.: 944801111), udalean dugun bulegoa (tel.: 944660288), gure webgunea eta bertan dagoen "bozgorailua" atala (www.pppetxo.net), eta Facebook (@populares.getxo), nahiz Twitter (@PPGetxo) kontuen bidez.



GETXOKO AIRE ETA ITSASOAREN KUTSADURAREN AURKAKO BORROKA

Zoritxarrez, duela zenbait urtetik Behe Nerbioiko airearen kalitate txarraren duen herrietako bat izateagatik nabarmentzen da Getxo. Datuen arabera, partikula esekien maila handiak egon ohi dira eta osasunerako oso kaltegarriak dira. Gure uren kalitatea ere kezkarria da; izan ere, aspalditik egon ez diren ur arreak eta zikinak dauzkagu uda honetan. GUK Getxok gure urak ur zikinekin kutsatzearen gertakari larria salatu zuen, eta orain salaketa hau gehitu behar zaio horri. Hori guztia erabate-

ko desinformazio-egoeran gertatu zen, eta Partzuergoa zein Bilboko Portua jomugan jarrita. Airearen kalitateari dagokionez, oso ohikoa da arrisku-maila horien egotea, baina abuztuan maila gorriera heldu ginen Getxon; hori osasunerako oso kaltegarria da, partikula kaltegarrien maila dela eta. Horregatik guztiagatik, egoera horiek eta haien inguruko administrazio-isiltasuna salatu nahi ditugu, baita horien berri eman ere. Ulertezina da mota horietako egoerak, guztion osasunerako (eta bereziki umeen, adinekoen eta arnasketa-ara-

zoak dituztenen osasunerako) oso kaltegarriak direnak, oharkabean joatea herritarrentzat. GUK Getxoko kideok gure airearen eta uren kalitatearen jarraipena egiten dugu, gure osasunerako zein bizi-kalitatearako ezinbestekoa delako, baita jasangaitza den kutsadura handiko egoeraren ere. Hilabete honetako osoko bilkuran gainerako taldeei eskatuko diegu gai honi buruzko iritzia emateko eta laguntzeko, egoera kezkarriari ekiteko xedez, hura hobetze eta konpontze aldera.



ERRONKAZ BETERIKO IKASTURTE BERRIA

Jadanik hasi dugun ikasturte politikoak 2019ko udal hauteskundeetan izango du bere amaiera. Azken urteetan hainbat lorpen izan ditugun arren, lan asko dugu egiteko. Erronka guzti horiei nola ez, ilusioz aurre egingo diegu, orain arte egin izan dugun bezala. Gure lehentasunen artean benetako herri partaidetza sustatzea dago. Izan ere, getxoitarrek, zein elkarteek era zuzenean parte hartu beharko lukete udalerriaren etorkizunarekin zerikusia duten gaietan EAJ-PSE osatzen duten gobernuaren tutela eta kontrolik gabe.

Partaidetzaren afera alde batera utzi gabe, hondakinen arloan lan handia dugu egiteko, alternatibak sortu beharrean baitgaude gure udalerria jasangarriagoa bihurtu dadin. Baina jakin badakigulako berdintasunik gabeko jasangarritasunik ez dagoela, Gizarte Zerbitzuen ereduak zalantzan jarri beharko dugu justizia soziala lortu eta zerbitzuaren eraginkortasuna handitzeko asmoz. Era berean, herriko merkataritza sustatu eta bultzatzeko neurriak landuko ditugu, helburua Getxon bizi eta lan egitea delako. Zentzu horretan esan gabe doa gure zeregina ez litzatekeela posible zuen

parte hartzerik gabe. Hala, zuen ekarpen eta ideiei esker etxebizitza plan eraginkor eta berritzailea osatu dugu, eta plan horretako neurriak praktikara eramaten ahaleginguruko gara. Norabide berean jarraituko dugu kulturartekotasuna, euskara, emakume eta gizonen arteko parekidetasuna, elkarbizitza eta normalizazio politikoa lortu arte.

[94.466.02.80](tel:944660280) // ehbildu@getxo.eus // <http://getxo.ehbildu.eus>

[@GetxokoEHBildu](https://twitter.com/GetxokoEHBildu) [f](https://www.facebook.com/EHBilduGetxo) EH Bildu Getxo [i](https://www.instagram.com/EHBilduGetxo) EH Bildu Getxo